

## **Nikaraguako egoerari buruzko erakunde adierazpena**

Garai zail batean dago Nikaragua. Gobernua gogor ari da zapaltzen ikasleek eta herritarrek bizi-baldintza hobek eta ustelkeriaren eta askatasun murrizketen amaiera eskatzeko egiten dituzten protestak, eta, horren ondorioz, ia 200 pertsona hil dira.

Nikaraguan gertatzen dena ez zaigu arrotz Euskadin bizi garenoi. Duela lau hamarkada, ehunka pertsona joan ziren Euskaditik Erdialdeko Amerikako herrialde hartara, gizartea eta politika sakonki aldatzen laguntzera, erregimen somozistak Nikaraguako herriari ezarriak zion pobrezia eta askatasunen urratzea deuseztatzeko asmoz. Geroztik, azken hamarkadetan, Euskadiko pertsona eta erakunde ugari jarraitu dute lanean herrialde horretan, proiektuak sustatuz hezkuntzan, osasunean, administrazio publikoan, genero berdintasunean eta bestelako arloetan.

Euskal erakundeak ere ez dira gelditu Nikaraguarekiko elkartasun olde horretatik at. Hainbat udalek, Euskal Fondoaren bidez, foru aldundiek, eta Eusko Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez, hainbat elkartasun jarduera sustatu dituzte, herrialde horretako gizarte garapena eta giza eskubideen defentsa sustatzeko. Hori dela eta, Nikaraguan gertatzen denak bereziki hunkitzen gaitu, eta ahotsa altzarazten digu, errepresaliatuei elkartasuna adierazteko eta askatasuna eta giza eskubideak aldeztuko.

Garai batean, mundu guztiaren sinpatia piztu zuten askatasunaren, humanismoaren eta gizarte justiziaren idealek, eta era guztietako herrialdeetako pertsona, organizazio eta erakundeek babesa eragin zuten. Gaur, ordea, alde batera utziak ditu ideal horiek denak Daniel Ortegak eta Rosario Murillok ordezkatzan duten erregimen ustel eta autoritarioak.

Horiek hala direla, behean sinatzen dugunok erakunde adierazpen hau adostu dugu:

1) Donostiako Udalak Nikaraguako Gobernuari eskatzen dio utz diezaiola ikasleak eta beste sektore batzuk zapaltzeari, eta hitzeman dezala elkarriketa prozesu bat jarriko duela abian, herrialde horretan berriz ere askatasuna izan dadin eta giza eskubideak errespetatu daitezzen.

2) Donostiako Udalak dei egiten die euskal herritarrei, eta batez ere donostiarrei, elkartasuna adieraz diezaieten nikaraguarrei, eta parte har dezaten euskal erakundeek, GGKEk nahiz Euskadin bizi den nikaraguar komunitateak egiten dituzten deialdietan.

Donostia, 2018ko ekainaren 27a.

## **Declaración Institucional sobre la situación en Nicaragua**

Nicaragua vive momentos difíciles. Las protestas estudiantiles y ciudadanas en demanda de mejores condiciones de vida y del fin de la corrupción y de la restricción de libertades, están siendo fuertemente reprimidas por el gobierno, lo que ha causado casi 200 muertos.

Lo que ocurre en Nicaragua no nos es ajeno a quienes vivimos en Euskadi, Hace cuatro décadas, centenares de personas del País Vasco acudieron a aquel país centroamericano para colaborar en un cambio social y político de gran calado, que pretendía acabar con la pobreza y la violación de las libertades a las que el régimen somocista había sometido al pueblo nicaragüense. Con posterioridad, durante las últimas décadas, numerosas personas y organizaciones vascas han seguido trabajando en ese país, impulsando proyectos en áreas como la educación, la salud, la administración pública, la equidad de género, y otras.

Las instituciones vascas tampoco han sido ajenas a esta corriente de solidaridad con Nicaragua. Diferentes Ayuntamientos, a través de Euskal Fondoa, así como las Diputaciones Forales, o el Gobierno Vasco a través de la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo, han promovido diferentes actuaciones solidarias tendentes a impulsar el desarrollo social y la defensa de los derechos humanos en ese país. Por todo ello, los ecos de lo que ocurre en Nicaragua nos conmueven especialmente y nos llevan a levantar la voz para expresar nuestra solidaridad con las personas represaliadas y en defensa de la libertad y los Derechos Humanos.

Hoy, los ideales de libertad, humanismo y justicia social que despertaron en su día la simpatía a lo largo y ancho del mundo, y concitaron el apoyo de personas, organizaciones e instituciones de muy distintos países, han sido abandonados por el régimen corrupto y autoritario que representan Daniel Ortega y Rosario Murillo.

Es por todo ello, que los abajo firmantes acordamos la siguiente declaración:

1) El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, solicita al gobierno de Nicaragua que ponga fin a la represión contra las y los estudiantes y otros sectores, y se comprometa en serio con un proceso de diálogo que devuelva al país la libertad y el respeto a los derechos humanos.


2) El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián hacemos un llamamiento a la población vasca, y en especial a la donostiarra, para que exprese su solidaridad con la población nicaragüense sumándose a las convocatorias que, a tal fin, realicen las instituciones y ONGD vascas, así como la comunidad nicaragüense que vive en Euskadi.

En Donostia / San Sebastián, a 27 de junio de 2018



Fdo: Jon Insausti

Portavoz EAJ/PNV



Fdo: Ernesto Gasco

Portavoz PSE-EE



Fdo: Miren Albistur

Portavoz PP